

Pako Sodupe

IDAZLEA

Elebide eta EHU gaztelania sendotzen

Ikasturte oso bat igaro da alfer-alferrik. Iazko udazkenean salatu nuen Elebiden (Herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko zerbitzua, EAEn) Teseo fitxa gaztelaniaz bete behar izan nuela, eta hala jarraitzen du fitxa horrek. Tesia euskaraz egin, eta UPV/EHUK eskura jartzen duen fitxa, Madrilgo Consejo de Coordinación Universitaria delakoak Espainiako Estatuko unibertsitateetan egiten diren tesiak artxibatzeko, gaztelaniaz bete behar! Baina, lasai irakurle, ez dut luma hartu sumindurik sentitzen naizelako, ni naizen gizaki berezi honi jaramon ez egiteagatik. Aztertu dezagun kasua, esanguratsua baita.

Fitxak berak guri dagokigunerako bi atal ditu, bata, inprimakia bera, laburra, bi mila karaktere asko jota, eta hori baino garrantzitsuagoa, administrazioak berak eskaini behar dio inprimaki hori tesia burutu duenari; bada, hori itzultzea, itzultzaile arduratsu batentzat ordubete pasatxoko lana izan liteke, gehiago ez! Gero, bigarren atala, tesi-egileak tesia laburtu egin behar du, gaztelaniaz nahitaez (hortik aurrera euskaraz, ingelesez, mandarin txineraz... laburtu dezake!).

Teseo inprimakiaren espedienteak ezin argiroago agertzen du Espainiako Estatuaren izaera: batua,



DANI BLANCO

zentralizatua eta gaztelanian zurkaiztua. Eta hori bezain garbi, hori posible izan dadin, EHUK egiten duen elkarlana: unibertsitate autonomikoak zentroa zentroago bihurtzen laguntzen du, periferiakook zentroko hizkuntza erabiltzera behartuz.

Eta Elebide? Borondate onenarekin gutunak hara eta hona, batere eraginkortasunik gabe. Madrileran gutuna, iazko azaroran; Madriletik erantzuna: “Bai, egingo dugu (datarik gabe)”. Hitz onak egingizak labur! Gaur arte. Ez dute egin nahi, ez dute artxibo zentrolean azpi-artxibo bat ireki nahi euskarazko tesi-laburpenak gordetzeko. Norbaitek gainbegiratu beharko lituzke! Gastu murrizketaren eta unibertsitate espainiarraren batasunaren amoretan!

BBCnews-en irudiak agertzen dira ba, iruzkinik gabe; irudika Teseo inprimakia, nire salaketa, UPVren erantzuna –hori Madriletik dator, eta normala da gaztelaniaz izatea; hori ez da inposizioa–; eta Elebideren gutun-truke debaldekoa. Iruzkina zuk jarri, irakurle!

Europako estatu deszentralizatuenean bizi omen gara; EHUK unibertsitate zentrala zurrizten du, eta itxurakeriaren apoteosi honetan, erramua jartzen duena Elebide da, teoriarik gure eskubideak defendatzeko, praktikan, itxurakeria hutsa. ■

«
Europako estatu
deszentralizatuenean bizi omen
gara; EHUK unibertsitate zentrala
zurizten du, eta itxurakeriaren
apoteosi honetan, erramua
jartzen duena Elebide da
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



oker “gu iristerako diruak ahituko dituk” esan zuena, eurotan Kortak maldiziotan baino dezente gutxiago hartzen zuen hark. Berrogei urtetik gorako kotizazioa izan, eta hala ere, garaiko nagusi batek baino gehiagok esandakoa jan eta urte batzuk kotizatzeke zituen, erretreta hartu zuen arte jakin ez zuelarik. Ezin zuen sinetsi lana egin gabe kobratuko zuenik, eta hila-betero txintxo-txintxo bere kutzako kartila berdintzen zutela ikusirik, harriduraz bizitzen zuen pagotxa. Harritzen zuena noski, ez kobratzearen beldurra zuen. Hogei bat urtez iraun zion egoerak, mundua utzi zuen

Ez zebilen

arte. Eta garai hartan, bere egoera normalizat eta irabazitako eskubidetzat zuten seme-alabek, orain bizi dute haren harridurarik gabeko beldurra. Zeren eta guardia zibilek Oñatin manifestazioa egitea bezain beldurgarria gauza gutxi mundu honetan. Eta Greziakoa ezagututa, are beldurgarriagoa letorkiekena, urtetan ezinbestean jarritako sosez elikatutako uniformedunenak ordaindu, eta gainera, haien errukia jasan behar izatea. Beren diruak ahitzen ari omen dira eta zer esanik ez beren seme-alabenak, orain errondak ordaintzen ari direnak. Ez zebilen oker bi gerra ezagutu zituen hark, bukaerako bere xumean suerte onekoa izan zena. ■